

# Asier Perez Gonzalez & Consonni SL eratu da, «gertakari sortzaile» izan dadin

Artistak akzioen eskaintza publikoa egingo du, bazkide eta babesleak lortzeko


Monise Arregi / Bilbo

«Kalitatezko kultur ekintza berritzaileak eta topaguneak» eskaintzeko asmoz sortu da Asier Perez Gonzalez & Consonni SL. Artistak «sorkuntza, trukea eta dibertsioa» bultzatu nahi ditu legezko enpresa horren bitartez. Akzioen eskaintza publikoa egingo du, eta erosle bakoitzak arte-lana ere baden agiri bat jasoko du.

ASIER PEREZ artistaren ustez, Bilbo kultura eta zerbitzu hirri modura aurkezteko bada ere, hiriko aisialdirako eskaintza «interes urrikoa da». Ildo horretan, «gertakari sortzaile» izatea nahi duen ekimena abiarazi du Consonni kultur elkartearekin lankidetzan: Asier Perez Gonzalez & Consonni SL konpainia. Akzioen eskaintza publikoa abian da jada.

Consonniren azpiegitura zabaldu eta hiriko kultur eskartari erantzun nahi dio Asier Perez Gonzalez & Consonni SL-k. Sorkuntza, sustapen eta hedapen artistikoko gune berri bi abiarazko ditu enpresak ekimena ezagutarazteko. [www.consonni.org](http://www.consonni.org) helbidea duen Interneteko *site*-a batetik, eta helbidea adierazten duten kamisetak bestetik.

Asier Perezen proiektuak Artelekuren, Eusko Jaurlaritzaren eta Consonniren babesa izan du. Komisario lanak Consonniko Franck Larcadek egin ditu. Egitasmoa Consonni lan bat enkargatu zionean sortu zela azaldu digu artista bilbotarrak. «Hiria ondo eza-



Asier Perez Gonzalez artistak Consonnirekin batera jarri du abian bere proiektua.

gutzen dut, bertan bizi naiz eta bertan irauten dut, eta nire asmoa izan da Bilbon gertakariak sortaraztea», adierazi du.

Artistaren lanari dagokionez, aipatu ekimenean ia ez dela existitzen dirudiela onartu du Perezek. «Baina halako egiturak Consonniri proposatzea da nire lana», zehaztu du. Lanagatik soldata jasoko du artistak Consonnik, diru horrekin eta bere politzikotik jarritakoarekin, Consonnik ematen duen beste zati batekin batera, sozietate mugatua sortzeko beharrezkoa den gutxienez 500.000 pezetako kapitala bildu du (20.000 libera). «Modu horretan hainbat ekimen antola ditzakegu, batzuk dirua atzera ekarriko

digutenak eta beste batzuk ez», dio artistak.

## Egitasmo ugari

Antolatuko diren ekitaldien artean BIO-KO Aretoa dago, zena kontzertuak, Dj-ak, bideo emanaldiak eta abar aterpetuko dituen. Sorkuntza eta kritika bultzatuko duten argitalpen bat, hitzaldiak edota musika zein ikus-entzunezko ekolozpenak egitea ere badago sozietate horren egitasmoen artean. Bilboko Udalerako hauteskundeetan parte hartuko duten politikariak mahal-inguru batean bilduko ditu ekainaren 8an, kultura, artea eta hiriaz eztabaidatzeko. Ekolozpen lanak ere egingo ditu Asier Perez Gonzalez & Consonni SL-k.

Bilboko egungo egoera sozio-kulturalaren artistak jokatuko beharrek paperaren inguruan hausnarketa egin du Asier Perezek proiektu horretan.

Sozietate mugatu gisa, mila partaidetza sortu dira, eta horietatik % 49 salgai daude, bakoitza hamar mila pezetan (400 libera). «Akzioen bitartez sozietateak egin ditzakeen ekimenak bultzatuko dira, akzio bakoitzari dagokion agiria artelan bat izango da, eta, beraz, balio ekonomikoa ere badu», azaldu du artistak bilbotarrak.

## Artea ez da objektua

Arte objektuak desmaterializatze bidea jorratu du Asier Perez Gonzalezek, bai abian jartzearen duen proiektuan bai lehenago egin dituen edota esku artean dauzkan erakusketetan. Hala, hilaren 11n Naonedan inauguratu zuen erakusketaren oinarria *casting* bat da. «Herritarrek hilaren 30ean udaleko lan arropekin desfilatzen jarriko ditut, eta ekintza horretan parte hartu nahi dutenen *casting*-a egiten ari dira egunotan», azaldu du artistak. Amsterdamgo W139 aretoan atzo ireki zen *Failure* erakusketak kolektiboan ere parte hartu du Perezek. Begoña Muñoz da komisarioa, eta artista bilbotarrarekin batera beste 20 lagun lanak bildu dira bertan.

## Laburrean

### ZINEMA

#### ■ Carlos Bernarrek

'El tren de las tres' bere lehen film laburra aurkeztu du Iruñean

CARLOS BERNAR zinemagileak *El tren de las tres* bere lehen film laburra aurkeztu zuen atzo Iruñean. Pelikulak auto istripu baten istorioa kontatzen du: emaztea eta semea tren geltokian utzi ondoren. Istripua du Juanek (Aster Hornaza), eta autoa trenbidearen gainean gelditzen da. Nafarroako Unibertsitateko irakasle Marta Fragorena da gidola, eta Hornazarekin batera, Malken Beltia eta Saturnino Garcia ageri dira.

#### ■ Bilboko Zinema

Fantastikoaren V. Asteak aurreko ekitaldietan baino ikusle gehiago bildu ditu aurtan

ATZO amaitu zen Arriaga antzokian Bilboko Zinema Fantastikoaren V. Astea. Antolatzaileak pozik daude ikusleen aldetik izandako erantzunarekin. Aste osoan genero fantastikoko hainbat film, luzeak zein laburrak, ikusi ahal izan dira Indautxoko El Carmen aretoan eta baita Leloa eta Sarririkoko unibertsitateko areto nagusietan. Mahai-inguruez eta Chicho Ibañez Serradorri egindako omenaldiaz gain makilaje ikastaroa ere egin dute asteen Bilbon.

### MUSIKA

#### ■ Arabako Haur Kantari Txapelketa gaur Iruña-Okan

HAMABI taldek parte hartuko dute Arabako Haur Kantari Txapelketa gaur arratsaldeko 16:30etatik aurrera Iruña-Okako saloan. Zazpi urtetik hamalaura bitarteko laurogei umetik gora kantatuko dute taldeak, bikoteka nahiz bakarka. Epallek hautatuko dituzten hiru taldeak eta publikoak aukeratu duena Euskal Herriko Txapelketa ariko dira ekainaren 19an Arrigorriagan (Bizkaia). Euskal Kantuzaleen Elkarteak bultzatu du txapelketa eta Arabako Diputazioak lagundu. Euskal Herriko gainontzeko eskualdeetan ere abian dira haurrei zuzenduriko kantu txapelketak

## IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

### MAREL, S.A.

AUTOMOBILAREN  
ZERBITZU  
INTEGRALAK

NISSAN PRIMA 1.610V R16L EXP  
M-SM 35 URTEA 1.200.000

MERCEDES E-230

M-MD 89 URTEA 1.300.000

R-EXPRESS ISOHIMO 1.4

B-OP 30 URTEA 675.000

R-EXPRESS 1.4 D

B-BK 89 URTEA 749.500

R-QUO 1.7 S

B-BK 89 URTEA 575.000

BIGAREN ESKUKO

IBILGAILUAK 125.000 pta.ik

ZURE AUTOAREN SALMENTA

KUDEATZEN DUGU

Mimenaga Bidea, 10

BERANGO

Tel.: 94 668 08 15

Mugik.: 608 670 796

### Elkartasun brigadak

Bilbo 94 479 07 03

Gasteiz 945 14 93 79

Iruña 948 20 60 55

Donostia 943 34 04 04

Cuba  
Mexico  
Guatemala  
Nicaragua  
Colombia

31 x 33 mm

### KOMITE INTERNAZIONALISTAK

66 x 33 mm  
2 MODULO  
(Edizio orokorra)

Egun: 5.800  
Astea (6 egun): 4.400  
2 aste (12 egun): 4.000  
Hilabetea (24 egun): 2.800

31 x 33  
MODULO  
(Edizio orokorra)

Eguna: 2.900  
Astea (6 egun): 2.200  
2 aste (12 egun): 2.000  
Hilabetea (24 egun): 1.400